

EDUKIAK**1. IRUDIA ETA ESANAHIA**

- Irudiaren izaera eta kontzeptua.
- Irudiaren bilakaera: sorreratik irudi digitalaren arora.
 - Irudiaren funtzioak. irudia errealitatearen errepresentazio gisa.
 - Irudiaren txunditzeko gaitasuna.
 - Ikusentzunezko komunikazioak duen garrantzia gure gizartean.
 - Irudiek eta mezuen azterketa kritikoek eskeintzen duten balorazio espresibo zein estetikoaren garrantzia.
 - Teknologia digitala.

2. IRUDI FINKOAREN KODEAK ETA LENGOAIAK

- Ikusizko mezuak osatzeko kodeak (kodigoak).
- Irudi finkoaren lengoaiak desberdinak (kartela, grafitia, komikia, argazkilaritza, diaporama).
- Irudi finkoaren erregistratzea: **Argazkilaritza**.
- irudi finkoen kaptazioa eta tratamendu sistemak. argazki teknikak

3. MUGIMENDUZKO IRUDIAK : ZINEA

- Zinearen **oinarri tekniko eta pertzeptiboak** (mugimenduaren ilusioa).
- Zinearen **garapen historikoa eta bere narratiba** (literatura eta gidoi zinematografikoa).
- Ikusentzunezko narratibaren adierazpen elementuak: **espazioa - denbora** eta hauen artikulazioa
- Genero zinematografikoak

4. IKUS-ENTZUNEZKO KONTAERAREN LENGOAIAK

- Animazioa eta bere generoak
- Bideogintza; bideoarte, bideoclip-ak

MATERIALA

Irudiaren inguruko ariketak egin ahal izateko plastikarako erabiltzen den materiala ekarri beharko duzue . Itsakia guraixek arkatzak (2HB, 2B), koloretako arkatzak, , errotulkiak eta irudiak lantzeko balio duen bestelako materiala (argazkiak kollageak egiteko, koloretako papera, tenperak, tintak

KALIFIKAZIOA ETA BERRESKURAPENA

EDUKIAK %60

- Egiten diren azterketen balioa izanen da hau
- Edukiak barneratzeko garatutako proiektuak zein aurkezpenak

EGUNEROKO LANA EBALUATZEKO %30

- Klasean egiten diren ariketen balioa
- Klasean **parte hartzea**
- Denbora eta errendimendua aprobetxatzea.
- **Zentzu kritikoa garatzea.**
- **Sormen gaitasuna lantzea.**
- Lanak garaiz eta garbi aurkeztea.
- Adierazpen grafikoan zentzu artistikoa edukitzea.
- **Lana originala eta pertsonala izatea.**

KLASEKO JARRERA EBALUTZEKO %10

- Elkarlanean ikaskideen **ideiak errespetatzea** eta baloratzea, baita hauek laguntzea.
- Klaserako **materiala ekartzea eta zaintzea.**
- Garaiz etortzea.
- Irakasleari **begirunea erakustea.**
- Hitzegiteko txandak errespetatzea
- Gaiarekiko interesa erakustea
- Ikasgelan jarrera egokia edukitzea.
- Ikastetxean **euskaraz egitea.**
- Telefono mugikorrak itzalita eta motxilan jasota izatea.

Hiruhileko kalifikaziorako, ikasleari **klaseko lana eta azterketa** gainditzea eskatuko zaio. Ikasleari, jarrera, euskeraren erabilera eta lan ohiturak ere ebaluatuko zaizkio.

Ikasleak hiruhilen bat gaindituko ez balu, **berreskurapen lana edo/eta berreskurapen azterketa** egin dezake **hurrengo hiruhilaren lehen hamabostaldiko tartean.**

Hiruhilen bat berreskuratu ezean, **ekainean berreskurapen froga** orokorrean atal hori berreskuratu ahal izateko aukera izango du, **baldin eta hiruhileko bakarra badu. Bi edo hiru hiruhileko izango balitu gainditu gabe,** ikasturteko **gaitegi osoa sartzen deneko azterketa** orokorrera aurkeztu beharko litzateke arloko **ohiko deialdian** kalifikatua izateko.

Ikasle batek ohiko deialdia gainditu ezean, **ez-ohiko froga** orokorrera aurkezteko eskubidea du. Froga hau mintegiak prestatuko du eta ikasturteko gaitegi osoaren azterketa izango da.

Ikasturtean zehar garatzen diren proiektuen arabera ebaluatzeko irizpide hauek alda daitezke.

